

GURE ENPRESAREN KOSTU EGITURA

Bi kostu mota daude, kostu finkoak (enpresako ekoizpen mailarekin edo negozio-bolumenarekin loturarik ez dutenak) eta kostu aldakorak (enpresaren ekoizpen-mailarekin aldatzen direnak).

1. KOSTU FINKOAK:

Alde batetik, lokala ordaindu behar dugu (alokatu eta mantendu behar da). Beste aldetik, langileen soldatak ordaindu behar ditugu; hau da, josteko laguntza emango diguten soldatak, gure soldatak eta gidarien soldatak. Hasiera batean ez ditugu pertsonak kontratatuko, baizik eta taldea bera egongo da dendan lan egiten. Etorkizun batean, jostunak eta gidariak kontratatu ditugu, beharrezko baliabideak eskuratzen ditugunean. Baita ordaindu beharko dugu segurua ere. Gainera, webgunearen mantenimendua ordaindu beharko dugu. Hortaz aparte, lokalarekin lotura duten kostuak: interneta, argindarra...

Gure kostu finkoak gutxi gorabehera 12600€-koak izango dira.

2. KOSTU ALDAKORRAK:

Arropa pertsonalizatua eskaintzen dugunez, eskaeraren arabera arropa egiteko produktu berezi batzuk beharko ditugu, ehunak, hariak, botoiak..., nahiz eta produktuen gehiengoa jendetik jaso, zerbait espezifikoa eskatzen badigute, hori erosi beharko genuke. Hortaz aparte, ACTECO-ri gure etekinaren %25a emango diogu, beharra duten pertsonentzat laguntza emateko. Gainera, online eskatzen duten jendearentzat banaketa bat egongo da, eta hori hilabetan egoten diren eskaera kopuruaren arabera izango da.

Pertsonalizazioa gutxi gorabehera 250€ balio dezake hilabetero. ACTECOri emango diogun dirua ezin da oso ondo asmatu, baina gutxi gorabehera 250-400€, etekinen arabera. Eta banaketaren arabera 300€ izango dira gutxi gorabehera. Izan dezakeen balioa 1000€-tara iritsi daiteke.

3. ZERGAK:

BEZa, eskualdeko eta tokiko zergak, eta erabakitzen dugun forma juridikoaren arabera, PFEZ (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) edo SZ (Sozietateen gaineko Zerga) ordaindu beharko dugu.